**BASAURI**
Udala · Ayuntamiento

Bandera Verde Mención ORO Ciudad Sostenible
Bandera Berdea

## KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA
ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA

**0401/2018 DEKRETUA**
DECRETO Nº 0401/2018
**Data: 2018/01/31**
Fecha:31/01/2018

Kultura-politika eta Euskara arloko diru-laguntzak emateko Oinarriak onartu ditu 2018ko urtarrilaren 10eko 0068/2018 Dekretuak —eta 2018ko urtarrilaren 24ko 17 zenbakidun BAOn argitaratu dira—.

Horren harira, Alkatetzak honako hau XEDATU DU, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikuluak eta indarreko gainerako legeriak emandako eskumenak baliatuta:

**LEHENENGOA:** «Hezkuntza: Ikasleen guraso elkarteek, ikastetxeek eta ikasketa-kooperatibek egindako jarduetak» diru-laguntzarako gastuak baimentzea, jarraian adierazi bezalaxe:

Habiéndose aprobado las Bases que regulan la concesión de subvenciones en materia de Política Cultural y Euskera, por Decreto de la Alcaldía 0068/2018 el 10 de enero de 2018, y publicado en el BOB nº 17 el 24 de enero de 2018.

Desde esta Alcaldía y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se DISPONE lo siguiente:

**PRIMERO:** autorizar el gasto para la subvención «Educación: Actividades realizadas por AMPAS, Centros Escolares y Cooperativas de Enseñanza», conforme al siguiente detalle:

| **Partidaren deskribapena** Descripción de la Partida | **Partida** | **Erreferentzia** | **Eragiketa Zk.** Nº Operación | **Zenbatekoa** Importe |
|---|---|---|---|---|
| **Transf. arr. guraso elkartei. IKASTETXE PUBLIKOAK. T. corr. a asociaciones de madres y padres. COLEGIOS PÚBLICOS.** | **71 3241 48177** | **22018000014** | **220180000014**<br>**220180000025** | **12.112,50 €**<br>**4.500,00€** |
| | | | **GUZTIRA / TOTAL** | **16.612.50€** |

**BIGARRENA:** «Hezkuntza: Ikasleen guraso elkarteek, ikastetxeek eta ikasketa-kooperatibek egindako jarduetak» diru-laguntzaren 2018ko deialdia onestea, IGEren eranskinean ezarritakoaren arabera. Bestalde, diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

**HIRUGARRENA:** xedatzea hilabeteko epea egongo dela eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**SEGUNDO:** aprobar la convocatoria de la Subvención «Educación: Actividades realizadas por AMPAS, Centros Escolares y Cooperativas de Enseñanza» de 2018, de acuerdo a lo especificado en el Anexo AMPAS adjunto. Y cuyo régimen de concesión es el de concurrencia competitiva.

**TERCERO:** establecer que el plazo para la presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Paper birziklatua eta klororik gabekoa
Papel reciclado y libre de cloro

**BASAURI**
Udala · Ayuntamiento

Bandera Verde Mención ORO Ciudad Sostenible
Bandera Berdea

**LAUGARRENA:** 2019ko urtarrilaren 31ko data ezartzea zuriketa egiteko epemuga gisa.

**BOSGARRENA:** Kultura-politika eta Euskara Arloko 2018ko diru-laguntzen deialdia argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

Basauri, 2018ko urtarrilaren 31.

**CUARTO:** establecer como fecha límite para la justificación el 31 de enero de 2019.

**QUINTO:** ordenar la publicación de la convocatoria para la concesión de las subvenciones del Área de Política Cultural y Euskera de 2018, en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal.

Basauri, 31 de enero de 2018.

**ALKATEA** / EL ALCALDE

BASAURIKO UDALA · ALKATETZA · ALCALDÍA

**Sin.** / Fdo: Andoni Busquet Elorrieta

**ERANSKINA: IGEK**

| | |
|---|---|
| Diru-laguntza lerroa | HEZKUNTZA ARLOKO JARDUERAK |
| Diruz laguntzeko kontzeptua | IKASLEEN GURASO ELKARTEEK, IKASTETXEEK ETA IKASKETA-KOOPERATIBEK EGINDAKO JARDUERAK |
| Aurrekontu-partida | 71 3241 48177 |
| Partidaren deskribapena | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK IAGE-EI, IKASTETXE PUBLIKOAK |
| Zenbatekoa | 12.112,50 € |
| Gehienezko zenbatekoa | 16.612,50 € |
| Diru-laguntza emateko prozedura | NORGEHIAGOKA |

1. **XEDEA:**

Ikastetxeko ikasleen gurasoen parte-hartzea erraztuko duten jarduerak sustatu eta bideratzea, bai eta guraso horiek hezkuntza arloan egiten dituzten ekimenei laguntzea, baldin eta ekimen horien bidez Basauri udalerriko ikastetxeetako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko laguntza ematen bada.

2. **NORI ZUZENDUA:**

Udalerriko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxeei. Basauri udalerriko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek (IGE) eta ikasketa-kooperatibek ere aurkeztu ditzakete eskabideak, hain zuzen ere, udalerrian eskolaz kanpoko jarduerak, oro har, egiten dituztenek (antzerkia, abesbatzak, zenbait kultura-jarduera...).

BAZTER UTZITAKOAK:
Ikasleentzako jarduerak egiten ez dituzten ikastetxeak, elkarteak eta beste.

3. **DIRUZ LAGUN DAITEKEEN JARDUERA:**

Astialdi hezitzailea bultzatzen duten programak, haurren eta gazteen heziketara zuzendutako aisialdi eta astialdi programak egitea badute xede.

BAZTER UTZITAKOAK:

1. Basauriko udal diru-laguntzen deialdi barruan, umeei eta gazteei zuzendutako beste diru-laguntza lerro bateko aisialdi eta astialdi jarduerak bultzatzen dituzten programak.
2. Ondoren zehazten diren jarduerak:
    3. Ikasketa-bidaiak, txangoak edota irteera didaktikoak.

4. Eskola-egutegiko jaiegunekin, urtemugekin, ikasturte amaierako jaiekin, eta abarrekin zerikusia duten jarduerak.
5. Kirol-jarduerak.
6. Kirol-instalazio eta eraikinetan egindako zaharberritzeak edo mantentze-lanak.
7. Gurasoei zuzendutako prestakuntza-jarduerak.
8. Eskola ordutegi barruan edo kanpoan jarduerak egiteko langileak kontratatzea.

## 4. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orria aurkeztu beharko da, honako dokumentu hauekin batera:

- Jardueren proposamena (Jarduerak_Actividades.doc).
- Aurrekontua (Aurrekontua_Presupuesto.xls).
- Eskola Kontseiluaren aldez aurretiko txostena, non jasoko baita onetsi egin dituela diruz lagundu beharreko jarduerak.

## 5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Deialdian agertzen dena.

## 6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

### 6.1.- PROGRAMAREN EDUKIA — 20 PUNTU

**A- Helburuak, eta aurreko urteko aurrekontua bat etorri izana aurkeztutako proiektuarekin.** **10 puntu**

Balioetsiko da aurreikusitako jarduera eta emaitzek proiektuaren araberako jarduera edo programaren xedeekin bat egitea.

| Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz aurreko urteko diru-laguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den) | |
|---|---|
| % 95 baino gehiago zuritu gabe | 0 puntu |
| % 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe | 2 puntu |
| % 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe | 5 puntu |

| | |
|---|---|
| % 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe | 8 puntu |

**B- Jarduerak:** **10 puntu**

| AURRERA ERAMANGO DIREN JARDUEREN KOPURUA | 10 PUNTU |
|---|---|
| 1 JARDUERA | 4 puntu |
| 2 JARDUERA | 8 puntu |
| 2 JARDUERA BAINO GEHIAGO | 10 puntu |

6.2.- FINANTZA-AHALEGINA: **20 PUNTU**

gastu totalen eta diru-sarreren arteko proportziozkotasuna. Era berean, finantza ahalegintzat hartuko da aurrekontuan jasotako gastuaren eta eskatutako diru-laguntzaren arteko aldea. Balioetsi egingo dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak.

| *Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)* | **20 puntu** |
|---|---|
| Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean | 5 puntu |
| Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean | 10 puntu |
| Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean | 15 puntu |
| Aurrekontuaren % 60 baino gehiago | 20 puntu |

6.3.- PROGRAMAREN IRAUNKORTASUNA: **5**
PUNTU

Balioetsiko da azken urteotan jarduerak ikasturtean zeharreko segida izatea.

6.4.- ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA: **12 PUNTU**

| ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA | 12 puntu |
|---|---|
| Jarduera guztiak euskaraz egitea | 6 puntu |
| Programaren eremu guztietan genero-ikuspuntua txertatzea. Proiektuan jasota agertu behar dira. *Adibidez: hizkuntza eta irudi ez-sexista erabiltzea, eta abar.* | 2 puntu |
| Jardueretan kulturartekotasuna sustatzea. Proiektuan definituta egon behar da. *Adibidez: jardueren irudian edo zabalkunde-kanpainan kulturartekotasun irizpideak txertatzea...* | 2 puntu |
| Desgaitasuna aintzat hartzen duten ekintzak antolatzea | 2 puntu |

6.5.- PROGRAMAREN ANTOLAKETA ETA UDAL PROGRAMETAN PARTE HARTZEA : 28 PUNTU

| **Ikastetxeko ikasle kopurua** | **5 puntu** |
|---|---|
| **Parte-hartzaile portzentajea, ikasle kopuru osoa aintzat hartuta** | **9 puntu** |
| Ikasleen % 10era arte | 3 puntu |
| % 10 eta % 25 bitartean | 6 puntu |
| 25% baino gehiago | 9 puntu |
| **Jarduera antolatu eta aurrera eramateko parte-hartzaile kopurua** | **5 puntu** |
| 3 lagun arte | 3 puntu |
| 3 lagun baino gehiago | 5 puntu |
| **Udal programetan parte hartzea** | **9 puntu** |
| - «Erdu euskareagaz» (elkarteekin euskaraz) | 3 puntu |
| - Beste batzuk. (puntuak jarduerako, 9 puntuko mugarekin) | 3 puntu |

Lankidetzak proiektuan zerrendatuta agertu beharko dira, eta bakar-bakarrik balioetsiko dira diru-laguntza espezifikorik jaso ez duten parte-hartze edo lankidetza proposamenak.

Edozelan ere, Atalak egiaztatu ahal izango du aitortutako lankidetzak benetakoak izan direla.

6.6.- ERAKUNDEA. 15 PUNTU

| KIDE DIREN PERTSONEN KOPURUA | 15 puntu |
|---|---|
| 0-100 | 5 puntu |
| 100-200 | 10 puntu |
| 200 baino gehiago | 15 puntu |

** Diru-laguntza ez badu IGEk eskatzen, puntu horiek balioetsiko dira jarduera antolatzen parte hartzen duten pertsonen kopuruaren arabera.*

7. **ONURADUNEN BETEBEHARRAK:**

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, diru-laguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta diru-laguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8. **HIRUGARRENAK AZPIKONTRATATZEA:**

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.